BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6052

AGINDUA, 2011ko urriaren 28koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Portugaleteko (Bizkaia) «Ibar Ezkerra Ikastola, S. Coop.» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa, eta, instalazioak lekuz aldatzeagatik, helbidea ere aldatzeko dena.

Portugaleteko (Bizkaia) «Ibar Ezkerra Ikastola, S. Coop» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren izena eta, instalazioak lekuz aldatzeagatik, helbidea ere aldatzeko aurkeztutako proposamena ikusi da.

Espedienteari Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak egin dizkio izapideak eta indarrean dauden arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio.

Gai horretan aplikatu beharreko legeria ikusi ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Portugaleteko (Bizkaia) «CPES Ibar Ezkerra Ikastola S. Coop. BHIP» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren izen espezifikoa aldatzea onartzea; aurrerantzean «CPES Ibar Ezkerra Lanbide Ikastola, S. Coop. BHIP» izango da. Ikastetxea Portugaleten (Bizkaia) dago (Grupo Alonso Allende z.g.) eta 48015748 kode-zenbakia du.

2. artikulua.– «CPES Ibar Ezkerra Ikastola S. Coop. BHIP» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari baimena ematen zaio instalazioak lekuz aldatzeko: ikastetxeak 48015748 kode-zenbakia du eta Portugaleteko (Bizkaia) helbide honetan dago: Grupo Alonso Allende z.g.; eta aurrerantzean, Bilboko Harrobi enparantza 4an egongo da.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 28a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.